

ELKARGOAK EUSKARAZ

20
Jakizu

Bazatoz Korrikara? - Pilula - Bideoa - Euskaraldia
¿Te vienes a la Korrika? - Píldora - Vídeo - Euskaraldia

2022
Martxoak 21

KORRIKA ELKARREKIN!

Korrika hasteko gero eta gutxiago geratzen da, eta Elkargoak Euskaraz merezi duen modura egin nahi dugu euskararen alde. Horretarako, **Bilbon 1602. km-a egingo dugu elkarrekin, Miribilla, apirilaren 6an, 21:24ean** (21:10ak ingururako han izango gara). **Bazatoz?** Korrika egin baino lehen **19:30ean geratu gara San Adrian garagardotegian**, Urretxindorra ikastola alboan (“Cervecería del Norte”), pintxo eta bertsolaria gure kontu! Kanpoko terrazan egoteko espazioa dago. Animatu!

Lelo-lehiaketa bat ere antolatu dugu Bilbora hurbildu ezin zaretenontzat. “Tipi-tapa, tipi-tapa ko-rrri-ka!” bezalako lelorik ezagunenak abesteaz gain, zer beste lelo bururatzen zaizu? Orokorrak eta lanbidekoak izan daitezke! Bidali zure proposamena, eta etorri kilometroa gurekin egitera! Gora Korrika! Hitzorduak:

19:30ean San Adrian garagardotegian ([hemen](#)).
21:10ean korrika egiteko [google maps lotura](#).

Bidali zure leloa! (eta etortzekoa bazara abisatzea eskertuko dugu):

¿VIENES A LA KORRIKA?

Ya queda cada vez menos para que sea la Korrika, y en Elkargoak Euskaraz queremos actuar a favor del euskera como se merece. Para ello, **vamos a correr el km nº 1602 en Bilbao, el 6 de abril, a las 21:24 en Miribilla. ¿Vienes?** Hemos quedado a las **19:30 en la Cervecería del Norte**, junto a la ikastola Urretxindorra, ¡piscolabis y bertsolari incluidos! Habrá espacio para estar en la terraza. ¡¡¡Anímate!!! Si solo vienes a correr estaremos allí sobre las 21:10 (debajo mapa).


Y para quien no se pueda acercar a Bilbo, **hemos organizado un concurso de lemas**. Además de los clásicos como “Tipi-tapa, tipi-tapa, ko-rrri-ka!”, ¿qué otros se te ocurre que podemos cantar? ¡Pueden ser generales o relacionados con la profesión! ¡Máhdanos tu propuesta de lema, y ven a correr el km con nosotros-as! Gora Korrika! Citas:

19:30 en la Cervecería del Norte ([Google Maps](#))
21:10 para correr en ([Google Maps](#))

¡Máhdanos tu lema!

(también agradecemos aviso si vienes):

basqueproeus@bm30.eus – 944 00 11 33 – 663 901 248



PILULA: EPOSTAK ETA GUTUNAK

Zer esapide erabili gutun formaletan? Zer trikimailu dago eposta txukunak idazteko? Eposta eta gutun ereduak ikusi nahi? Eman begiratu bat lanean kalitatezko komunikazioak egiteko argitaratu dugun pilula berriari:

PÍLDORA: EMAILS Y CARTAS

¿Qué formulas son las más adecuadas en cartas formales? ¿Qué trucos hay para escribir emails de calidad? ¿Quieres ver modelos de emails y cartas? En esta píldora formativa vamos a ver qué recomendaciones podemos seguir para realizar comunicaciones de calidad en el trabajo:

[9. PILULA: EPOSTAK ETA GUTUNAK – EMAILS Y CARTAS: PÍLDORA Nº 9](#)

[Ea zenbat asmatzen duzun! – ¡A ver cuántas aciertas!](#)

HITZALDIAREN BIDEOA IKUSGAI

Otsail amaieran egindako hitzaldi interesgarriaren bideoa ikusgai dago Youtuben jada: https://youtu.be/5RrAXzkl_aw. Ondorio nagusia da hizkuntza aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa dela ama lurraren garapena jasagarria izateko. Laburpen osoa azpian dago.

EUSKARALDIAREN IKERKETA

2020ko Euskaraldiko datuen ikerketa argitaratu dute: <https://euskaraldia.eus/2020-ikerketa/>. Guztira 178.184 lagunek eta 8.309 entitatek parte hartu genuen. Ahobiziak %77ak eta Belarriprestak %23 izan ginen. Emakumeen parte hartzea handiagoa izan da eta txapa eramateak asko lagundu du erabilera handitzen. Aldaketa handienak ezezagunekin eta kalean izan dira.

VIDEO DE LA CHARLA DISPONIBLE

Ya está disponible en Youtube el vídeo de la charla que realizamos a finales de febrero: https://youtu.be/5RrAXzkl_aw. La principal conclusión es que tener en cuenta la diversidad lingüística es imprescindible para que el desarrollo de la Tierra sea sostenible (debajo resumen completo).

ESTUDIO A EUSKARALDIA

Ya podemos leer [el estudio realizado a la edición de 2020 de Euskaraldia \(en euskera\)](#). En total participamos 178.184 personas y 8.309 entidades. Como ahobizi fuimos el 77% y como belarriprest el 23%. La participación de mujeres ha sido más alta y el llevar la chapa ha ayudado mucho a aumentar el uso del euskera. Los mayores cambios han sido con desconocidos y en la calle.

Euskara eta 2030 Agenda

Euskararen biziberritze prozesuan asko lortu da, baina euskarak hizkuntza gutxitu izaten jarraitzen du, hau da: euskararen erabilera ez dago normalizatuta bizitzaren esparru guztietan. Euskararen normalizaziorako positiboa izan den **40 urteko ibilbide honetan atzerakadarik ez gertatzeko, aukera ona da mundu-mailan dagoen prozesu batean (2030 Agenda) munduko hizkuntzak gordetzeko proposamena txertatzea.**

Horretan dihardute EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrako kideak, Inés García Azkoagak azaldu zigun bezala. Hain zuzen, hitzaldian jakin genuen moduan, munduko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ez dira modu esplizituan aipatzen NBERen garapen jasagarrirako helburuetan (2030 Agenda). Zehar-lerroko helburu hori jadanik 2030 Agendan txertatzen ari dira hainbat eragile eta entitate publiko nahiz pribatu, batzuk esplizituki aipatuta eta beste batzuk implizituki euren praktiken bidez, hizlariak azaldu zigun bezala. Zentzu horretan, **garapen jasagarrirako euskara ere erabiltzea funtsezkoa dela erakusten ari dira.**

El Euskera y la Agenda 2030

En el proceso de revitalización del euskera se ha conseguido mucho, pero el euskera sigue siendo un idioma minorizado, es decir, el uso del euskera no está normalizado en todos los ámbitos de la vida. **Para evitar un retroceso después del recorrido de los últimos 40 años, es una buena oportunidad incorporar en un proceso a nivel mundial (Agenda 2030) la propuesta de preservar las lenguas del mundo.**

A ello se dedica la Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial de la UPV/EHU, tal y como nos explicó la ponente, Inés García Azkoaga. Precisamente, como nos indicó en la conferencia, la diversidad lingüística y cultural del mundo no se menciona explícitamente en los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU (Agenda 2030). Sin embargo, este objetivo transversal (la preservación lingüística) ya se está incorporando a la Agenda 2030 por parte de diversos agentes y entidades públicas y privadas, algunos citando el objetivo de manera explícita y otros implícitamente a través de sus prácticas, tal y como nos explicó la ponente. **En este sentido, están demostrando que el uso del euskera también es fundamental para el desarrollo sostenible.**

Izan ere, mundu mailako NBEren helburuetan hizkuntzaren gaia txertatu ezean, hizkuntza zein kultura aniztasunaren eta bioaniztasunaren galera gertatuko da, orain arte bezala, eta arrazoizko pisuak daude hori ez gertatzeko:

- Hizkuntza bakoitzak mundu-ikuskera ezberdinak gordetzen ditu
- Norberak nahi duen hizkuntza erabiltzea oinarritzko eskubide bat da eta babestu eta bermatu egin behar da
- Norberaren hizkuntza erabili ahal izateak
 - Jendeak komunitatean aktiboago parte hartzea dakar
 - Nagusiengandik gazteagoenganako ezagutzaren transmisioa hobetzen du
 - Eskolan emaitza hobekak dakartza
 - Osasun hobea esan nahi du, hainbat ikerketaren arabera

De hecho, si no se incluye el tema del idioma en los objetivos de la ONU a nivel mundial, se producirá una pérdida enorme de diversidad lingüística y cultural y de biodiversidad, como hasta ahora, y hay razones de peso para evitar que esto ocurra:

- Cada lengua contiene diferentes visiones del mundo
- El uso de la lengua que cada cual elija usar es un derecho fundamental que debe protegerse y garantizarse
- El uso de la lengua propia:
 - Implica una participación más activa de la gente en su comunidad
 - Mejora la transmisión del conocimiento de las personas mayores a la juventud
 - Proporciona mejores resultados en la escuela
 - Ayuda a tener mejor salud, según varios estudios

Ateratako ondorio nagusia, beraz: **hizkuntza aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da ama lurraren garapena jasagarria izan dadin**. Ondorioz, esan daiteke euskara erabiltzea zentzu batean “ekologikoa” dela, euskarari espazioak ematean munduko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna mantentzen ari garelako. Norberak bere aletxo jar dezala! Ekin euskarari!

La principal conclusión es, pues, que **la diversidad lingüística es esencial para que el desarrollo de la Tierra sea sostenible**. En consecuencia, se puede decir que el uso del euskera es en cierto sentido ecológico, porque al dar espacios al euskera estamos manteniendo la diversidad lingüística y cultural del mundo. ¡Que cada cual ponga su granito de arena! Ekin euskarari!

